



25. Euskal Denda

EUSKAL ARTISAU SEKTOREAREN AZOKA
LA FERIA DEL SECTOR ARTESANAL VASCO
FERIA DU SECTEUR ARTISANAL BASQUE

2020-ABENDUAK 4-8
4-8 DICIEMBRE-2020
DURANGO (BIZKAIA)

Artisau agurgarriak.

EUSKAL DENDA aurkezten dizuegu Euskal Artisau Sektorearen Azoka Azoka famatu au 25 urte betetzen ditu eta abenduaren 4-tik 8-arte Durangon izando da.

Celebracion-lekua: Durango-merkatuko plazako azoka-esparrua, Uribarre kalea z/q.

Ordutegia:-

Egunak: **4 -7** : 11:00 - 14:30 - 16:30 - 21:00 -

Eguna: **8**: 11:00 - 14:30 - 16:30 - 20:00

Informazio orokorra, zein parte hartzeko imprimakiak, 25. EUSKAL DENDAREN blog-ean eta Web aurki ditzazkezu, elbide onetan:

<http://www.euskaldenda.info/inscripcion.asp> -
<http://euskaldenda.blogspot.com.es/>

Interesdunak, **ESKABIDE-ORRIA**, eta gainontzeko agiri osagarriak, datuak argi eta garbi idatzirik, hauetako helbide batera bidali behar dituzte:

E-mail: artisautza@arbaso.com

Correo postal: **EUSKAL DENDA** 306 posta-kutxa 48200 Durango (Bizkaia)

Arreta-ordutegia argitaratzen dut: 9:00etik 13:00era (Tel.: **946 218 196**)

Izena emateko azken eguna abuztuaren 26a izango da

Deialdi hau zuhurtasun guztiarekin egiten dizuegu, edozein unetan dena alda daitekeela kontuan hartuta, iazko azokaren kostuari eusten diogu, salbu eta aldatarik ez bada jartzen ditugun standen kopuruari dagokinez.

Unean-unean jakinaraziko dizuegu edozein aldaketa.

Deialdi honetan aldaketak egon daitezke, Kobidaren bilakaeraren eta gobernuak horren inguruan har ditzakeen erabakien arabera.

Jakinarazpen hau ekainaren 16ko 58/2020 Foru Dekretua betez bidaltzen dizuegu

Parte-hartze arau orokorrak

1. Deialdi honen eremua ondoko Lurralde Historikoak hartzen ditu: Araba, Benafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa . Erakusgai jarriko diren produktu guztiak aipaturiko lurraldeetan beharko dute eginak izan.
2. Ezinbesteko baldintza izango da erakus eta saltzen diren gai guztiak artisau berak egin eta ekoiztutakoak izatea. Egokitutako stand-ean artisau bakoitzak bere ekoizpenak soilik azaldu ahal izango ditu. Ez da produkturik onartuko artisauak berak egindakoa ez bada. Ez da onartuko stand bateko arduradun izatea identifikatu barik dagoen inor, edota alde zuzenetik, antolatzaileei jakinarazi gabeko inor.
3. Documentazioa
 - Eskaera-orria ondo beteta; era telematikoan egin daiteke ondoko helbideetatik:
<http://euskaldenda.info>
<http://euskaldenda.blogspot.com>
 - Dagokion eskualdeko eskulangile-eroldan izena emanda egotearen egiaztatagiri eguneratua erantsi beharko

zaio eskabide-orriari edo artisau txartela.

- Osasun erregistroa (kosmetika gremioarentzat)
- Osasun Erregistro-errolda, manipulazaila-txartel (Elikadura sektorea)
- Autonomoetako azken 3 ordainagirien fotokopia
- EJZn alta emanda egotearen ziurtagiri eguneratua, artisautzari buruzko epigrafe batean.
- Konpromiso eta Pribatutasun eskutitza sinatutako.
- Poliza eta erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiria.
- Kurrikulum profesional labur bat.
- Aurkeztu beharreko produktuen zerrenda, prezioak
- Erabilitako teknikak eta lehengaiak.
- 5 argazki (lau saltzen diren objektuenak eta bestea stand-arenak). Hobeto formatu digitalean (.JPG) ó (.TIF)
*(EZ dira argazkien fotokopiarik onartuk
* **Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.**

4. Koronabirusa dela eta, bizi dugun egoera dela eta, erakusketari bakoitzak osasungintzak eskatzen dituen higie eta osasun neurriak bete beharko ditu, baita udalak ekitaldi horietarako ezartzen dituen baldintzak ere. Izan ere, irizpide-aldaketa etengabea dela eta, oraindik ez ditu ezarrita.
Azkenean aukeratutako artisauiei 19. Kodeak jarraitu beharreko arauak bidaliko zaizkie, haien berri izan bezain laster.
5. Posta arruntaren bidez jaso izan dugun dokumentazioa ez zaie bide beretik itzuliko azokan parte hartzeko hautatuak izan ez diren artisau-enpresei.
Aipaturiko dokumentazioa antolatzaileen esku geratuko da, eta Datuak babesteko Legeak ezartzen duena betez, suntsitu egingo da.
6. Erakusketariei irailaren jakinaraziko zaie Antolaketa Batzordearen erabakia.
 - Parte hartzaile bakoitzari dagokion lekunea ezin izango da aldatu ezta gainditu ere, antolatzaileen idatzizko baimena izan ezean.
 - Onartutako tailerrak Euskal Dendaren web gunean eta blogean jarriko ditugu.
 - Antolatzaileek erreserbatuta utzi ditzakete zenbait eskaera eta aztertu egingo luke horien parte hartzea, onartutako erakusketarietatik baten batek araudia edo standa ordaintzeko epea beteko ez balitz.
7. Orri informatiboak direnez, orri hauek jasotzeak ez du azokan parte harteko eskubiderik ematen. Etortzeko baliodun titulu bakarra **onarpen eskutitza** izango da, aukeratutako artisauiei soilik emango zaiena.
8. Azokan parte hartzeko gremio bateko eskari larregi badago, eta beste gremio batzuetan lekua soberan, antolatzaileek gremio hartako artisauen parte hartzea % 20ra mugatuko dute.
9. Bitxigintza edo bisuteriakoak ez diren standek, bisuterian, gehienez, % 20 izan ahalko dute erakusgai.
10. Azokan parte hartzeko onarpena jaso eta egun gutxira, 150 euroko lehen ordainketa-agindua bidaliko dugu standa erreserbatzeko fidantza moduan. Artisauak standari uko egiten badio, fidantza ez zaio inolaz ere itzuliko.
11. Parte hartzen duten enpresei honakoak baloratuko zaizkie
 - Azokan parte hartuko duten artisau-enpresetako % 50etik gora Bizkaikoak izatea
 - Enpresa eskatzailea Arbasoko bazkide izatea
 - Produktuen kalitatea eta erakusteko duten itxura.
 - Standean, jendaurrean, titularra bera egotea.
 - Jendaurrean erakustaldia egiteko konpromisoa.
 - Aurreko edizioetako parte hartzea ebaluatzea.
12. Foku gehigarriak ipini behar badira, kontsumo txikikoak izan beharko dira, eta aldeztu behar zaizkie antolatzaileei, muntaiaren eskema eta kontsumoa zehaztuta. Araututa dagoen legez, ezin dira erabili berotzen diren bonbillak. Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokiagoa deritzona erabakiko du.
13. Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokiagoa deritzona erabakiko du.
14. Azokaren antolatzaileak ez dira Azoka egiten den aldian gerta daitezkeen lapurreta eta galereen kargu egingo.
15. Antolakuntzaren esku egongo da:
 - Artisauaren bat azokan ez onartzea, baldin eta baldintza administratiboak edo kalitatezkoak betetzen ez baditu.
 - Jarraipen bisita egingo zaie onartutako tailer guztiei eta parte hartzeko eskaria egin dutenei.
 - Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.
 - Antolakuntzak, stand batean irregulartasunik aurkituz gero, besterik gabe azokatik kanpo hutziko du artisaua. Horrela gertatuz gero kalte ordainak jasotzeko eskubidea galduko luke.
16. Artisauak stand-a oinarrietan ezarritako epearen barruan betetzen ez badu honen erabilera antolatzaileen esku

geratuko da. Kasu honetan artisauak inongo indemnizazio edo ordainketa jasotzeko eskubiderik ez du izango. Honetaz gain, bere ustetan arduretan huts egiten duen artisauak, irekitzeko/izteko ordutegiak, garbitasun arauak ez errespetatzea edota beste edozein arairen huts egitea dela eta), Azoka honetako ondorengo edizioetatik kanpo uztea antolatzaileen esku geratuko da.

17. 4 metroko standak jartzeko aukera badago ere, espazioa zein den ikusi ondoren erabakiko da.

18. Debehatuta dago:

- Argazkiak ateratzea artisau-erakusketariei eta produktuei, baldin eta antolatzaileek edota artisauak berak ez badu baimena eman.
- Azoka esparruan bizikletak eta txakurrak sartzea (itsu-txakurrak sartu daitezke).

PREZIOAK:

	Stand - 2 *2 m.	Stand - 3*2 m.	Stand - 4*2 m.
Bizkaiko artisauek	180	270	360
Besteak artisauek	250	375	500
Elikadura	300	450	

STANDEN EZAUGARRIAK

- Stand modularrak: aurrealdea 2,3 eta 4 metrokoak, sakonera 2 metrokoa eta altuera 2,50 metrokoa. (útil interior 2,36 m.)
- Aluminiozko egitura zilarrak eta melanina zuriz estalitako panelak.
- Serieko argiztapena: kontsumo txikikoak foku LED , 2 eta 3 metroko standak, 50 W-ko 2 foku ditu bakoitzak; eta 4 metroko standak, 50W-ko 3 foku bakoitzak
- 500 W-ko muga-gailudun entxufea.
- Binilozko errotulua, 10 zentimetrokoa (gehienez, 20 karaktere)

AZOKA KATALOGOA

25. euskal Denda dela eta, antolatzaileok erakusketarien katalogo bat egingo dugu. Bertan argitaratuko diren datuak izena emateko fitxatik aterako ditugu, beraz, ez da izango gure erantzukizuna akatsik edo hutsik badago.

OHARRA

Artisau-erakusketariren batek erakustaldi berezia egin edo ume edota nagusientzako ekintza edota tailerra antolatzeko asmoa badu, proposamen- txostena eta aurrekontua bidali behar dizkie antolatzaileei, aztertzeko, nahiz eta ez da segurua haurrentzako tailerrak egitea; udalak ezartzen dituen baldintzen zain gaude, baina.